

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pierre Etxeleku Pierrot

*Arbona
Lapurdi (1923)*

Aurkibidea



Biografia



Pierrot Arbonako Luhartenea etxean sortu zen 1923an. Aita eta ama Arbonakoak zituen eta zazpi haurrideen artean zaharrena izan zen. Ongi ezagutu zuen Arbonako bizia gaztea zelarik, ohiturak, pilota, inauteriak eta lanbide zaharrak. 19 urteak arte egon zen sorterrian. Miarritzen mekanika apendizgoa egin eta teila-fabrika batean lan egin ostean, zerbitzu militarra egitera joan zen. Han erabaki zuen militarra izan nahi zuela, eta 22 urte eman zituen armadan. Aita hil zitzaionean erabaki zuen amarengana itzultzea, Arbonara. Bertze arbonar batzuekin Primadera dantza-taldearen sortzaile izan zen.

Zintak

ABO-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Data:** 2012-12-19
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Kodifikatzailea:** Dibon, Peio

Pasarteak

1. Soldadugoan egon zen arbonarra

- **Erref:** ABO-001/001
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Arbonan sortu zen Pierre Etxeleku 1924an, Duhartenea deitu etxean. 19 urtez armadan sartu zen, eta ondotik soldadu egon hainbat herrialdetan. Bordelen egin zuen gehiena. Mekanikan ere aritu zen gaztetan.

Transkripzioa

- Orduan izena eta deitura nola dituzu?
- Izena: Etxeleku, Pierre.
- Pierre Etxeleku. Baduzu izengoitirik?
- Pierrot /Pierro/, "voilà".
- Pierrot? Hori hemen, Arbonan?
- A ba, Arbonan, Pierrot erraiten baduzu, normalki atxeman... atxemanen / atxemain/ nute.
- Eta Arbonan berean sortua zara?
- Arbonan sortua naiz ba, Arbonako... Arbonan sartzian, lehembiziko etxe handi hori, Duhartenia.
- Eta noiz sortua zara?
- No... noiz sortua naizen? Mila bedeatzi ehun ta hogoita hiruan, urriaren hamarrian. Egurditan. Igande batekin.
- Eta aita eta ama, hemengoak zenituen, Arbonakoak?
- Arbonakoak biak. Biak Arbonakoak. Ama... nere ama, ni sortu naizen etxekoa. Eta aita... aita hemengoa.
- Etxe honetakoa? Orain bizi...
- Etxe huntakoa ez, zeen... aitatxi senpertarra zen... aitatxiin aita senpertarra zen, aitatxi saratarra, eta aita auzoko etxian sortu zen.
- Eta zenbat urteak arte egon zara Arbonan bizitzen?
- Hemeetzi urte. Lehenik hemeetzi urte 'ta gero etorri naiz berriz.
- Eta gero nora... nora joan zinen?
- Joan nintzen armadarat, ordüan gerla zen eta "en zone libre", "zone libre" deitzen zen lekurat joan ginen han, ta gero, geroztik... hogoita... hogoitabi urte, eta izatu naiz Algerian eta Libanian. Eta gero etorri naiz hunat, nere aita hil zen eta ama bakarrik zelakotz, etorri ginen hunat bizitzeat.
- Eta non ibili zinen orduan, Frantziako kasernetan?
- Bai, gehienak... gehien Bordelen.
- Bordelen?
- Gehienak Bordelen. Gero eskoletan ibili naiz zerian... Nantes eta Caen, eta gero gehien... gehienak Bordelen.
- Eta zenbat... zenbat haurride zineten familian?
- Zazpi haur. Zazpi haur.
- Zu zenbatgarrena?
- Boz... boz mutiko... ni zaharrena eta boz mutiko 'ta bi neska ginen.
- Eta orduan erran duzu armadan egon zinela, eta gero... lehenbizi mekanika ikasi zenuen?
- Ba, mekanizier apendizgoa egin dut, "enfin" Egostarre deitzen den Miarritzeko karrika batian, gero [...] zombait urte hor eta gero... teilerian lanian, gauazko... gauazko lanian, teilerian, eta gero soldado partitu. Eta gero... gero hunat etorri nintzelaik berriz, sartu naiz magasinier... magasinier gisa "chauffage-sanitaire" etxe batian, eta gero eletrika etxe batian, erretreta arte.

2. Miarritzeko lantegi batean maniobra

- **Erref:** ABO-001/004
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Duharteneko arbasoak laborariak izan ziren; Pierrot eta bere aita, aldiz, kanpoan aritzen ziren, teilak eta brikak ekoizten zituen enpresa batean. Ama etxeko lanetan ari zen.</p>

Transkripzioa

- Eta orduan zuk ezagutu duzu Arbona, duela aspaldiko Arbona, txikia zinelarik.
- A ba, ba, ba.
- Eta zuen etxean... zuen etxea laborantza etxea zen?
- Ez, ez, batee. Batee. Nee arbasoen etxea, ba. "Fin" gero fotografia ikusten ahalko duzu /ahalkouzu/... ikusten ahalko duzu /ahalkouzu/ nahi baduzu...
- Gibelean dena?
- Ba.
- Hori zen, lehenbiziko... Arbonan sartzean, lehenbiziko etxea?
- Lehembiziko etxea ba, eskuñetaik. Hor ba, hor laborari zien, ba, "mais" arbasoak e.
- Eta zuen garaian, orduan, aita zertan aritzen zen?
- Aita manubra zen. Aitu zen Miarritzeko teilerian, ainitz demboran, ni aitu naizen bezala, eta gero manubra "entreprise"... zombait antreprizetan.
- Eta teileria hartan, teilak egiten zituzten orduan?
- Teilak eta brikak, ba, ba, ba... ba. Ba lan bortitza zen, hola-hola.
- Zer... zer lana? Nola egin behar zen lanea, nola egiten ziren horiek, teilak?
- Teilak nola egiten zien? Lurra ekartzen zen harrobietaik lehenik, Arrangoitzeko eta Uztaitzeko harrobietaik, eta zombait lur elgarrekin nahastekatuik eta maxinetan pasatzen zien, eta handik gero filiera, ez dakit /eztakit/ nola erraten den eskuaraz baina bazen filiera bat eta maxinate pusatzen ziin... pusatzen ziin lurra maxinaekin filieraekin barnean eta forma hartzen ziin. Eta gero guk... guk pikatzen giniin behar zen /behartzen/ neurrian eta garraiatzen giniin leku bateat, gero bihaamunian bertze norbaitek e... lur moltsoa ekartzeko, eta presa batian ezartzen zuzten teilak... teilak egiteko. Eta brikak egiteko berdin. Lan... lan bortitza zen.
- Zu eta aita, horretan arituak zarete?
- Ba, ba, ba, ba... ba.
- Eta zertako bortitza zen? Nekatzen zen?
- A... pisua!
- Pisua?
- Pisuak zien. Eta gero aitu ginen... gero brikak ematen zien idortzen, idorrek zielaik, ematen zien labietan, labietan erretzen... erretzen zizuten, ta gero aitu nintzen berritz labietaik ateatzen. Hor 'e biziki bortitza zen, behar zien / behartzien/ labietaik ateatu erriak zien... kasik erriak, ta bertze kampo... kampoat ereman. Izigarri... izigarri bortitza zen hala.
- Eta orduan, hori egiten zuelarik, aita ez zuen laborantzarik egiten? Ez zen bera?
- Ez zuen / etzuen/ ez zuen /etzuen/... Hau ziin, etxea ziin orduan, baatze ttiki bat zen bakarrik, ez zuen /etzuen/ astiik, indarrik ez u!
- Eta ama etxeko lanetan aritzen zen?
- Ama etxeko lanetan, borz hurrekin baziin... baziin egiteko!

3. Laborariak eta bertze lanbide txikiak

- **Erref:** ABO-001/005
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

Gehienak laborantzatik bizi baziren ere, ofizio txiki anitz baziren Arbonan. Pierrot gai horri interesatu zen, eta holako lanbide bereziak zerrendatu: dendariak, zapataginak, harginak, ikatz saltzaileak etab.

Transkripzioa

- Eta denbora horretan, Arbonan, zertarik... zertarik bizi zen jendea? Bazen ofizio... ofizio anitz, Arbonan?

- Ba.

- Orain... orain ez direnak?

- Ba, ba, ba, ba... bazien ba. Bon gehiena laborantzan zien eta egiten zuten e... esneketari frango're bazen, eta gero bazien ofizio ttiki ainitz... ofizio ttiki.

- Eta izana zara biltzen, ez?

- Ze?

- Ari izana zara izkiriartzen zein ziren ofizio txiki horiek...

- Ofizio ttiki... bazien dendariak, zapata antolatzaileak, ez dakit /eztaki/ nola... zapatainak!

- Zapataginak.

- Zapataginak, harginak... eta holako... holako ofizio... ofizio frango, eta gero bazien komertsioak 'e bazien gero... Bazien bat, bi... hiru epizeria, bazien bi bollandaria, hiru ostatu, hargi...

- Zurginak?

- Ikatx martxanta...

- Ikatx martxanta?

- Ikatx martxanta... Ba behar... beharko... beharko nien hartu hoi...

- Hartu, hartu!

- A bon, bon.

- Eginak dituzu zerak, paper batean. Zertako hasi zinen hola?

- Ba ideia bat hartu dut /hartut/ ideia bat etorri zaitan eta "to, behar dituk / behartuk/ atxeman lehembiziko... lehembiziko ofizio eta komertsant nola zien...". Hola... Neetzat... neetzat, batez liburu baten egiteko... denbora pasatzeko...

4. Arbonako hilkutxa egilea

- **Erref:** ABO-001/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Norbait hiltzen zelarik, etxeko bat ibiltzen zen etxez etxe berria jakinarazten, telefonorik ez zelako garai hartan. Arbonan, Bordako Léon Bidegaraik zituen hilkutxak egiten. Lan berezi horren gain, Pemartia etxean zegoen erietxean aritzen zen garbiketa eta sukaldaritza lanetan.

5. Karrikan zeuden zapataginak

- **Erref:** ABO-001/007
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:11:16. **Bukatu:** 00:11:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

Pierrot oroitzen da denboran bi zapatagin zeudela Arbonan, karrikan kokatuak. Zapatak arrimatzen zituzten. Eskalapoi-egilerik ez zegoen aldiz.

6. Arbonako ekoizle eta saltzaileak

- **Erref:** ABO-001/008
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:11:56. **Bukatu:** 00:16:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Lanbideak

Laburpena:

Pasarte honetan, Arbonako karrikan zeuden ofizioak aipatzen dizkigu Pierrotek: ogi egile, dendari, hargin, arotz, ikatz saltzaile, espartin egile. Beste batzuk, berriz, ibilkariak, kanpotik etortzen ziren: harakin, espartin saltzaile, arrain saltzaile eta abar.

7. Erosketak Arbonan berean egiten

- **Erref:** ABO-001/009
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:16:58. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Aktibitate gehienak Arbonan berean egin behar zituzten herritarrek, biderik ez zelako hurbileko hirira (Biarritzera) joan ahal izateko.

8. Jendeak laborantzan eta lantegietan lanean

- **Erref:** ABO-001/010
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:18:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Zenbait etxe handiak baldin baziren, gehienak aski ttipiak zirela erraten digu Pierrotek. Horregatik, jende franko aritzen zen lanean bai laborantzan, bai kanpoan, hirietako lantegietan.

9. Arbonako ostatu etxeak

- **Erref:** ABO-001/011
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:18:47. **Bukatu:** 00:19:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Hiru ostatu zeuden Arbonan. Ostatu etxe edo familia pentsioak zirela dio Pierrotek, Pemartiko adibidea azalduz.

10. Edateko ura ziternetatik hartzen

- **Erref:** ABO-001/013
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:21:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Ura franko berandu heldu zen etxeetara. Edateko ura ziternetan atzematen zuten jendeek, edo putzuetan. Arnoa ere edaten zen, txikitatik... Pierroten etxean, aitzitik, ez zuten arnorik egiten.

11. Miarritzerako bide zilotsua

- **Erref:** ABO-001/014
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:21:29. **Bukatu:** 00:22:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Bide gehienak ziloiz beterik zeuden. Miarritzera joateko bide bakarra ez zela mundrunatua erraten digu arbonarrak.

12. Gerla denborako alderdi debekatuan zen Arbona

- **Erref:** ABO-001/015
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:22:06. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian

Laburpena:

Bigarren Mundu Gerla garaian, Frantzia hiru partez zatitua zen: okupatu gabeko alderdia, alderdi okupatua, eta alderdi debekatua. Mugatik hurbil izanik, Arbona alderdi debekatuan zegoen. 1942an Pierrot herritik joan zelarik, alemanik ez zen orduan.

13. Gerla ondotik biltegizain bilakatu

- **Erref:** ABO-001/016
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Gerla bururatu ondotik, etxera itzuli zen Pierrot, biltegizain gisa aritzeko.

14. Etxez etxe ihauteri denboran

- **Erref:** ABO-001/017
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Ihauteri denboran, Pierrot eta bere anaia etxez etxe ibiltzen ziren Plazan, janari bila. Etxeetan maiz ematen zuten kantu bat eskaintzen digu pasarte honetan: "Xingar eta arroltze".

15. Etxez etxe urte heltzean (I)

- **Erref:** ABO-001/018
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Urte heltzean, Pierroten aita etxez etxe ibiltzen zen lagunekin, kantuz, diru eske. Biltzen zuten diruari esker, ondoko igandean elkartzen ahal ziren besta egiteko.

16. Etxez etxe urte heltzean (II)

- **Erref:** ABO-001/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:31:39. **Bukatu:** 00:33:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Etxez etxe ibiltzen zirelarik, kantu bera ematen zuten biltzen ziren 6 mutikoek: 'Dios te salve'. Talde horretako kideak ziren ere musikariak, hala nola turutaria eta atabalaria. Pierrotek dioenez, euskara ez zekitenei kantu berezi bat eskainia zitzaien, frantsesez naski.

17. Etxean euskaraz, eskolan frantsesez

- **Erref:** ABO-001/021
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:33:29. **Bukatu:** 00:34:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Garai horretan, euskara etxean berean transmititzen zen. Eskolan aldiz, frantsesez aritzera behartuak ziren haurrak. Hala ere, lagunartean euskaraz mintzo zirelarik, ez ziren zigortuak bertze herri batzuetan bezala. Errient onak zituztela dio Pierrotek. Bere aldetik, apezak bi hizkuntzak baliatzen zituen.

18. Herriko bestak

- **Erref:** ABO-001/022
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:34:29. **Bukatu:** 00:36:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Pasarte honetan, herriko bestetako ohiko programa ematen digu Pierrotek: meza igandetean, hamaiketako igande, astelehen eta asteartetan. Arratsaldean, pilota partida eta dantzaldi txiki bat zeuden, angelus arte.

19. Pilotaren fama

- **Erref:** ABO-001/023
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:36:01. **Bukatu:** 00:39:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Igandetan, meza bururatu orduko, pilotan aritzen ziren jendeak. Arrayet anaiak famatuak zirela dio. Egun batez, batek erran zion Pierroti pilotari onak Arbona eta Ahetzeko plazetan atzematen zirela. Pierrot ere pilotan aritu zen, bereziki palantxan.

20. Primadera dantza taldea

- **Erref:** ABO-001/024
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:39:16. **Bukatu:** 00:42:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Arbonako Primadera dantza taldeko sortzaileetariko bat izan zen Pierrot. Pierre Betelu etorraz zuten astean behin dantza kurtso baten ematera. Euskal Herriko dantza talde hoberenetariko bat bilakatu dela Arbonako taldea erraten zuten zenbaitzuek.

21. Arbonarrak vs.arbonesak

- **Erref:** ABO-001/026
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:42:43. **Bukatu:** 00:44:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Kanpotik etorri jende anitz badagoela Arbonan dio Pierrotek. Arbonan berean sortu direnak 'arbonarrak' baldin badira, Arbonara geroago etorri direnei 'arbonesak' erraten die Pierrotek.

22. 'Nik zuri eman zaitut'

- **Erref:** ABO-001/027
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:44:12. **Bukatu:** 00:45:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Pierrotek lehengo euskaraz mintzatzen jarraitzen du, gaur egun okerrak liratekeen forma batzuk erabiliz: 'nik zuri eman zaitut' (dizut), 'zuk neri eman nauzu' (didazu)... Irakaslea izanez, bere alabak zuzentzen du, gaurko forma batuak erakusten baitizkio.

23. 'Eskuara segi dadiela hola, behar den bezala'

- **Erref:** ABO-001/028
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:45:46. **Bukatu:** 00:46:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Elkarriketa akabatzekotan, Pierroti azken hitza: euskara segi dadila hola, behar den bezala. Primadera taldekoei luzaz iragatea desiratzen die ere.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com